

Udal Batzarrak, 2017ko azaroaren 27an egindako Ohiko bilkuran, honako erabakia hartu zuen:

“6.- “AZAROAREN 25A, EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA EZABATZEKO NAZIOARTEKO EGUNA” ERAKUNDE ADIERAZPENA

EH Bildu talde politikoak deialdiarekin batera banatutako ondorengo erakunde adierazpena aho batez onesten da:

“2017KO azaroaren 25a, emakumeen kontrako mota guztietako indarkeria gaitzesteaz gain, indarkeria sortzen duten agente eta egitura guztiak gaitzesteko eta aski dela esateko egun bat da. Eta egun horretan erakunde publikoek, borroka horretan dugun lehentasunezko agente-izaera berretsiz, konpromiso zehatzak hartu behar ditugu. Emakumea izategatik soilik indarkeria jasateko aukera txikiena dagoen bitartean, gure herrian ez dugu bakea edo normalizazioa lortuko.

Horregatik, Anoetako Udaleko EH Bilduko taldeak honako adierazpen instituzionala aurkezten du plenoan aurkeztu eta onartzeko:

1- Udal honek, indarkeria mota hau izendatzeko modua zehazte aldera, aurrerantzean “indarkeria matxista” adiera erabiliko du, indarkeria hori gizarte matxista batek sostengatzen duela irizten baitu.

2- Anoetako Udalak, 2018ko aurrekontuak definitzeko unean, Parekidetasun sailari beharrezko baliabide tekniko eta ekonomikoak emango dizkie, eta unitate horiek egonkortu eta indartzeko konpromisoa hartzen du.

3- Udal honek, herriko eragile desberdinekin eta bereziki emakume-taldeekin lankidetzan, Anoetan indarkeria matxistei aurre egiteko plan bat aztertuko du, horretarako beharrezkoak diren baliabide ekonomiko eta tekniko guztiak aktibatuz.

4- Anoetako udaletik borroka feministaren alde hartu dugun konpromisoa berretsi nahi dugu, indarkeriarik gabeko gizarte demokratiko bat eraikitzeko bide eta tresna nagusia den heinean, eta, bide horretan urtean zehar generoaren inguruko hausnarketa eta jabetasun guneak antolatuko ditugu, hezkuntza egitasmoa bultzatuko dugu Ikastolarekin batera eta martxoaren 8aren eta azaroaren 25aren inguruan ekitaldiak bultzatuko ditugu.

5- Udal honek Foru Aldundiari eta Emakunderi eskatzen die emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alorreko aurrekontu-partidak handitzeko, berdintasun-zuzendaritzak sendotzeko, epaitegietako genero-unitateak indartzeko eta indarreko legeria berraztertze konpromisoa hartzeko.

6- Azkenik, izendatzen ez dena ahazten errazagoa delako, eta inork ez ditzagun ahaztu, aurrean hil dituzten edo eraso larriak jasan dituzten emakumeak eta euren seme-alabak (askotan ahaztu egiten diren biktimak) gogorarazi nahi ditu Anoetako Udalak:

- Elvira López, Portugaleten eraila,
- Sara Majarenas eta Izar 3 urteko alaba, aitaren aldetik erailketa-saiakera bat jasan zuena Benifaió udalerrian,
- Blanca Marqués, Burlatan eraila,
- Raquel López, Eibarkoa, eta 11 urteko semea, Alcobendasen erailak,
- Sofia Tato, Villabonakoa, Cáceresen eraila,
- Mélodie Massé, 8 hilabetez haurdun, Ustaritzen eraila,
- Noelia Noemí, Sestaon eraila, eta
- Ana Belén Jiménez, Lantaronekoa, Miranda de Ebron eraila.

Anoeta, 2017ko azaroaren 27a.”

Guztia jakinarazten dizuegu, bere berri izan dezazuen eta dagokion lekuan ondorio egokiak eragin ditzan.

Anoetan, 2017ko azaroaren 28an
Idazkaria